



Barrundiako Udala

Azaroaren 27ko 524/2019, ebazpenaren laburpena, "sailkatutako eraikinak birgaitzeko eta eraikinak apaintzeko" dirulaguntzen deialdia.

BDNS (identifikatzailea):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa.- Onuradunak.

Diru-laguntzen onuradunak izango dira Barrundiako udalerrian kokatutako etxebizitzaren baten jabe diren eta ohiko bizilekua bertan duten pertsona fisikoek, baita maizterrek eta bestelako tituluak dituztenak ere.

Bigarrena.- Diru-laguntza ematearen xedea.

Honako hauen finantzaketa:

.- Etxebizitzak birgaitzeko.

.- Euskal Kultur Ondareari buruzko Legean monumentu gisa sailkatuta dauden eta kultorako erabiltzen diren eraikinak birgaitzeko.

.- Udalerriko eraikinen fatxadak konpontzeko.

Hirugarrena.- Oinarri araupetzaileak.

Udalbatzak, 2013ko urtarrilaren 29an egindako batzarrean, sailkatutako eraikinak birgaitzeko eta eraikinak apaintzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza onartu zuen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Kopuru osoa: 2.000,00 euro.



Aurrekontu partida: 1522.780.000.

Bosgarrena.- Eskariak aurkezteko epea.

Dokumentazioa aurkezteko epea 2019ko abenduaren 30era arte izango da.

Ozaetan, 2019ko azaroaren 27an.

IDAZKARIAK

Jon Txopitea Zugadi